# BEFESA ZINC ÓXIDO, S.A.U. Amorebieta

## Enpresaren identifikazioa eta helbidea

**BEFESA ZINC ÓXIDO, S.A.U.**
Euba auzoa z/g
48340 – Zornotza (Bizkaia)

Befesa Zinc Óxido, S.A.U. establezimendua (Zornotza, Bizkaia) irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuaren xedapenen mende dago (substantzia arriskutsuak tartean diren istripu larriei loturiko berezko arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen ditu dekretu horrek), eta 7. artikuluan xedatzen den jakinarazpena aurkeztu dio Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari, artikulu horretako 1. apartatuan zehazten den edukiarekin, baita 10. artikuluko 1. apartatuan adierazten den segurtasun-txostena ere.

## Establezimenduaren jarduera

Burdinazkoak ez diren bestelako metalak ekoiztea

## Istripu larria eragin dezaketen substantziak

| Izena | H esaldiak | Piktogramak |
|---|---|---|
| Zink-hautsa (lehengaia) | **H410:** Oso toxikoa uretako organismoentzat, eta kalte iraunkorrak eragiten ditu |  |
| Zink errautsak (lehengaia) | **H360:** Ugalkortasunari edo fetuari kalte egin diezaioke<br>**H410:** Oso toxikoa uretako bizitzarentzat, eta kalte iraunkorrak eragiten ditu |  |
| Zinkaren 2. fusioko errautsak | **H360:** Ugalkortasunari edo fetuari kalte egin diezaioke<br>**H410:** Oso toxikoa uretako organismoentzat, eta kalte iraunkorrak eragiten ditu |  |
| Zink oxidoa | **H360:** Ugalkortasunari edo fetuari kalte egin diezaioke<br>**H373:** Kalteak eragin ditzake organo jakin batzuetan, esposizio luze edo errepikatuagatik<br>**H410:** Oso toxikoa uretako organismoentzat, eta kalte iraunkorrak eragiten ditu |  |

Azken eguneratzea: Azaroa - 2026

| | | |
|---|---|---|
| Zink errauts finak | **H317:** Larruazalean erreakzio alergikoa sor dezake<br>**H335:** Arnasbideak narrita ditzake<br>**H350:** Minbizia eragin dezake<br>**H360:** Ugalkortasunari edo fetuari kalte egin diezaioke<br>**H373:** Kalteak eragin ditzake organo jakin batzuetan, esposizio luze edo errepikatuagatik<br>**H410:** Oso toxikoa uretako organismoentzat, eta kalte iraunkorrak eragiten ditu |  |
| Zink-hauts eta zink-errautsen nahasketa | **H317:** Larruazalean erreakzio alergikoa sor dezake<br>**H335:** Arnasbideak narrita ditzake<br>**H350:** Minbizia eragin dezake<br>**H360:** Ugalkortasunari edo fetuari kalte egin diezaioke<br>**H373:** Kalteak eragin ditzake organo jakin batzuetan, esposizio luze edo errepikatuagatik<br>**H410:** Oso toxikoa uretako bizitzarentzat, eta kalte iraunkorrak eragiten ditu |  |
| Mata-labe zuzeneko zepak | **HP 14**: ekotoxikoa, ingurumeneko konpartimentu bat edo gehiagoetarako, arriskuak aurkeztu edo aurkeztu dezaketen hondakinak |  |
| Escorias hornos de crisol | **HP 14**: ekotoxikoa, ingurumeneko konpartimentu bat edo gehiagoetarako, arriskuak aurkeztu edo aurkeztu dezaketen hondakinak |  |

## Gerta daitezkeen istripu larriak eta horien balizko ondorioak

Befesa Zinc Óxido, S.A.U. enpresaren instalazioetan substantzia toxikoak, sukoiak eta ingurumenarentzako kaltegarriak daude. Substantzia horien ezaugarriak eta kantitateak kontuan hartuta, arriskuen analisietatik ondoriozta dezakegu istripu larriak (alegia, establezimendutik kanpo eragiten duten istripuak) produktu horiek tartean dauden istripu zehatzetan bakarrik gerta daitezkeela.

Istripu-hipotesiei dagokienez, substantzia solidoen eta likidoen isurketak dira, eta horien arriskugarritasuna ur-ingurumenarekin lotuta dago.

## Establezimenduak nola jokatu behar duen istripu larria izanez gero

Enpresak neurri egokiak hartu behar ditu establezimenduan, eta larrialdi-zerbitzuekin jarri beharko du harremanetan, istripu larrien kasuan jardun eta arriskuak ahalik eta gehien murrizteko.

Establezimenduan esku hartzeko jarduerak eta agintari eskudunei adierazi beharrekoak autobabeserako planean jasota daude.

## Kanpoko Larrialdi Plana

Eusko Jaurlaritzaren Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak Befesa Zinc Óxido, S.A.U.-ren Kanpoko Larrialdi Plana egin du gerta daitezkeen istripuak prebenitzeko, eta pertsona guztiei istripuetan nola jardun behar duten jakinarazteko, betiere 840/2015 Errege Dekretuaren 13. artikuluarekin bat etorriz.

Kanpoko Larrialdi Plan honek jarduteko jarraibide zehatzak ditu larrialdi-zerbitzuentzat, eta, horrez gain, larrialdiren bat denean zerbitzu horiek eman beharreko aginduak ere jasotzen dira.

Ustezko larrialdi bat planifikatzeko helburuarekin, bi jarduketa-gune definitu dira: esku hartzeko gune bat, zeinean istripu baten ondorioek eragindako kalteen mailak justifikatuko lukeen babes-neurriak berehala aplikatzea; bestalde, alerta-gune bat, zeinean istripu baten ondorioen eragina herritarrek ikusteko modukoa izaki, esku-hartzea justifikatzen ez duen, salbu eta biztanleriaren talde kritikoentzat.

Arriskuen ebaluazioaren arabera, eta planteatutako hipotesien arabera (substantzia solidoen eta likidoen isurketak dira, eta horien arriskugarritasuna uretako ingurumenari dagokio), baztertu egiten da hodei toxiko edo sukoien eraketarekin, gainpresioarekin edo erradiazio termikoaren irismenarekin lotutako alerta-, esku-hartze- eta hilgarritasun-eremuen kalkulua. Ez da egokia Kanpoko Larrialdi Planerako garrantzitsuak diren egoerak kalkulatzea, ez baita substantzia toxiko baten ihesa.

## Azken ikuskapena

2025ko azaroaren 10an egin zen azken *in situ* ikuskapena.

Aurrez eskatuta, azken *in situ* bisitaren eta ikuskatze-planaren datuak lor daitezke, hemen:

**Industria Segurtasun Zerbitzua**
Industria Garapen eta Administrazioaren Zuzendaritza
Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasun saila
Donostia kalea 1
01010 Vitoria – Gasteiz

## Informazio gehigarria

Informazio gehiago nahi izanez gero, jo hona:

**Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritza**
Foronda kalea 41, La Torre eraikina
01010 Vitoria – Gasteiz